

BAO/EGOITZA ELEKTRONIKOA/WEBGUNEA

BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN EBAZPENA, 2018KO EKITALDIAN MERKATARITZA-ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TARIFEN BERRIKUSPENARI BURUZKOA

Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluaren 2017ko abenduaren 13ko bilkuran, Bilboko Portuko Agintaritzak emandako merkataritza-zerbitzuengatik indarrean dauden tarifen berri eta Zuzendaritzaren txostenaren berri eman zen. Txosten horren eduki xeheari lotzen zaio ebazpen hau. Horrenbestez, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legeak, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, 246.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, gobernu-organo horrek honako hau ebatzi du aho batez:

1. 2018ko ekitaldirako Bilboko Portuko Agintaritzak emandako merkataritza-zerbitzuengatik oraingo tarifei oro har eustea onartzea. Hala ere, urez eta energia elektriko horitzaileentzako tarifak eguneratu egingo dira, estatuko eguneratzeen eta hornitzaileen eguneratze egokien ehuneko berean.
2. Aurreko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, egoitza elektronikoan eta Bilboko Portuko Agintaritzaren webgune korporatiboetan argitaratzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 114.1 c) artikuluan xedatzen duenaren arabera. Haren aurka, 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluaren aurrean, hilabete bateko (1) epean edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi (2) hilabeteko epean (bi kasuetan, jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatuko dira), Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8.3 artikuluan, 10.1 m) eta 46. artikuluei lotuta, xedatzen duen moduan. Gainera, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso jarri ahalko da. Santurtzin, 2017ko abenduaren 13an. Lehendakaria, Asier Atutxa Zalduegi. Idazkaria, Juan Carlos Verdeal Pinto.